

Kolazino Mendi Egunerako izena emon leiteke daborduko

10. orrialdea

San Kristobal eta Getaluetan indusketak egingo ditue

Igorreko San Kristobal ermitearen inguruan dagoan nekropolian eta Getaluetako kobetan aurten indusketak egiteko asmoa agertu dau Igorreko alkateak. Nekropolian georradarra pasau eben igaz eta hilobi gehiago topetako aukera ikusi eben. Getaluetan, barriz, antxinako aztarnak topau ditue. 13. orrialdea



Zer? izeneko diskoa kaleratu eta Igorren aurkeztuko dau Uckaia taldeak

12. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

266

2017ko urtailaren 17a
hamabostekaria
www.begitu.org



Atutxa beti txapeldun

Aitzol Atutxak Bizkaiko hamargarren txapela jarraian eta Euskal Herriko hirugarrena lortu ebazan igaz. Urrezko Aizkolarien liga izan ezik, beste guztia irabazi dau Dimakoak. Aurreko urtean, bardin, orduan be bat izan ezik lehia guztietako txapelak jantzi ebazan.

Hain goian mantendutea gatxa dala eta dana irabazteko presinoari aurre egiten jakin egin behar dala dino. Arratian azkora zaletasunari eusteko herri kirol eskolaren bat behar dala uste dau Atutxak. Azkolariak ez dira azkoraren profesionalak eta bere enpresari alderdiaz be egin dau berba. 16. orrialdea

Gorbeiaiko gudariak



1936ko gerra biztu zanean, orduko indar abertzaleak (EAJ, ANV, STV, EMB) hasieran ez ebazan euren milizianoak, geroko gudariak, gerrara bialdu. Arratian gudari abertza-

le gitxi egon arren, Gorbeian, Euzko Mendigoxale Batzeko "Lenago il" eta "Zergaitik ez" batailoiak bururatu zirala ekarri dau gogora Alvaro Rabellik bere erreportajearen. 8. eta 9. orrialdeak

DIMA

Dimako plaza diseinetako lan saioak

Dimako plaza oinezkoentzako izatea gura dabe dimoztarrak. Horretarako, prozesu parte hartzailea abiatu eban Udalak eta hurrengo egunetan saioak egingo ditue herritarrak euren ekarpenak egin dagiazan. Urtilaren 29an izango da lehenengoa. Egun horretan deituta dagoz dimoztarrak plazaren diseinurako auzolana egiteko. 7. orrialdea



ARRATIA

Errota proiektuaren inguruko erakusketea egingo dabe Igorren

Arratiaren garapenerako sortutako Errota ekimenaren orain arteko ibilbidea erakusteko eta hurrengo pausuak zeintzuk diran azaltzeko, urtailaren 23tik 27ra erakusketea egingo da Igorreko Kultur Etxeko erakusketa gelan. Erakusketea 10:00etatik 21:00etara egingo da zabalik, eta Errota talde eragileko kideak azalpenak emongo ditue egunero, goizeko 11:00etatik 13:00etara eta arrastiko 18:00etatik 20:00etara. 7. orrialdea

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115



www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com

IGORRE

Aisialdi eta kulturarako espazio barriak egingo dira Igorren

Gazteria arloko programak aurrera aterateko, eta erabilera anitzeko gune moduan erabilteko, Udalak, Aisigunea izenpean, espazio barri bat egokituko dau. Jubiladuen lokalaren ondoan egingo da, eta beste gauza batzuen artean, kontzertu txikiak, berbaldiak eta bertso-afariak egin ahal izango dira bertan.

Proiektuak 400.000 euroko aurrekontua dauka altzariak barne. 5. orrialdea



ARRATIA KOLOREETAN

HARRIKETARRAK GAZTE ASANBLADEA

(1) *Grisa koloreztatzeko zer egin geinkean eta (2) gure armarik onena, irudimena zala ikasi genduan. (3) Milaka amets euki arren, gu norabide bakarrean ibili gara, (4) desikasiz, amestuz eta eraikiz; (5) hazi, hezi eta biziz. Gris egoan bailara honetan (6) kapitalismoaren aurrean gure eskubideak burukatu doguz, (7) amestu genduan mundua irudikatuz eta autogestinoa biziz, (8) autogestinoa biztutea lortu arte! (9) mugetan jantzan egin dogu gure iraultza, (10) jantzatu ezin bazan, ez zalako gurea izango... Bai, (11) nonbait hasi behar eban, eta zein leku hau baino aproposagorik? Bai, (12) noizbait hasi behar eban eta zein une hau baino hobetik? Horretarako, (13) bizitza zoriontsuen*

fabrikea sortu genduan, (14) lar heldututen danak ustelduta amaituten daualako. Eta (15) kontalaria faltau jakun arren, hainbat urte pasau doguz bertan (16) soso izan beharrean, zoro izaten. Beste urte batez esaten jarraituteko (17) herri bat, Gaztetxe bat!

Eta zergaitik 17 urtetan zeharrekoleak jarraituten gaitue definituten? Esku zein ago diferentetatik urtendakoak izan arren, danak bihotz eta izakera bera daukielako jatorri. Urteak daroaguzalako leloak kamisetetan eta hormetan idazten edota agoz ago pasilloetatik garraiatzen; aurtengo hamabostaldian be entzun eta sentidu ahal izan diran leloak.

Ezta erreza zehaztea hamabostaldia kontu hau noz hasi zan,

eza zergaitik hasi zan, ezta zergaitik iraun dauan. Izan be, ezta erreza hau neurtutea, ez dogulako zenbakietan neurtu gura! Ez dogu neurtuko parte hartzaile kopuruan, aulki hutsetan edo eserleku faltan, ez dogu neurtuko gainezka dagozan karteletan edo ekintza barik pasetan doguzan hileetan. Ekintza, kartel eta aulkiak bilaketa bat baino ez diralako. Gure esentziaren bilaketa bat, barnean zirraratzen sentiduteko egiten doguna. Guk hemen sortu doguna su bat dalako eta zenbat egur botaten dogun neurtu geinkean arren, garra neurtuteko gailurik ondinokarren ez daukagulako.

Sentimentuen joan-etorri bat izan da gurea eta sentimentu bakotxa kolore batez definituten bada, prozesuaren parte diran sentimentuak dira gure garra margozen dabenak. Eta bai, batzuetan, garra bajuagoa da eta ez amatatzeko bildurrez



ibiltzen gara inguruan, kontuz ikasiz, desikasiz eta hasiz. Prosezua gozatu, maitatu eta zainduz, gure helburua ez dalako garraren kolorea, baizik eta koloreztatzen jarraitutea.

Baina zer gara ez bagara orain garana? Gaurko zutabe honetan sekreto bat konpartidu gura dogu

zuokaz danokaz... amaitu barri dogun hamabostaldi kulturean Karabiekiko suak berotu gaitu. Eta espero dogu hurbildu zarien guztiak berotu izana. Horregaitik eta horretarako segiduten dogulako bizirik.

Harriketarrik Gazte Asanbladea (Lemoa)

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara
Urtilaren 16tik 22ra

Rodríguez Martínez, Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara

Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.

Urtilaren 23tik 29ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Urtilaren 30etik zezeilaren 3era

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Lucía Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea 94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Euskotren 902 543 210

Areatzako Notarioritza

94 673 92 26

Bizkaibus* 902 222 265

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara

30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago

zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Arrigorriaga

Arteatik urteerak lanegun eta zapatuetan

06:55ean eta 13:55ean.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik ez.

Zeberio-Arrigorriaga

Lanegun eta zapatuetan 07:10, 08:10, 09:10,

11:10, 14:10, 15:10, 16:10, 18:10, 19:10, 20:10

Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriaga-Zeberio-Artea

Arrigorriagatik 12:40ean urtetan dan zerbitzua Arteraino heltzen da lanegun eta zapatuetan.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Arrigorriaga-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40,

12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40.

Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandiokoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau

eta Otxandiokoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.

Babesleak:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Ainhoa Duñabeitia.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

Publizidatea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Marta Rodríguez, Pablo Rodríguez eta Rut Rodríguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Iker Perez eta Ismael Martínez (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tirada: 7.000 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Igorreko EAJ-PNVri gutun irekia

Hiru urtetik gora pasau dira Igorreko gazte batzuek Garbe 14 bis-eko eraikina okupatu genduanetik (nahiz eta gerora, jaubeagaz akordio batera heldu ginan). Sasoi haretan, kolektiboaren izakerea gorpuzterakoan, Gaztetxearen ezaugarri eta balore batzuk finkatu genduzan (euske- rearen alde egitea, ama-lurraren defentsa, autogestinoa, kultura eta aisialdia...) eta Igorre ugari baten alde lan egin gura genduanetz, ente apolitiko bat izatea ebatzi genduan (eta holan mantendutena gara).

Halanda be, gure ibilbidean, Udaletik, sarri heldu jakuz EAJ-PNV alderdiak gure eraikinaren segurtasuna dala eta dituan kezka. Tarte honetan, dakigunez, udal batzorde desbardinetan (Komunikazio Batzordea, Hezkuntza Batzordea, Hirigintza Batzordea...) etenbako interpe- lazinoak, Udalean sartutako hiru idatzi eta espediente irekiera me- hatxu bat aurkeztu ditu. Guregan- a ostera, behin baino ez da eto- rri zuzenean (kasualidadez -edo

ez- hauteskunde garaian).

Behin eta barriro esan deustu- gu eraikina eta bere segurtasuna hobetzeko lanetan gabilzala, bai- ta aseguratuta gagozala; horren interesdun handienak, gu geu, egunerokotasuneko erabiltzaileok gara-eta. Jakin badakigu, zuon alderdiko zinegotzi batzuk seme- alabakaz egon zariela Gaztetxean bertan. Benetan holan pentsaiko bazendue, leku segurutzat ez do- zuen eraikin baten seme-alabok sartzea ardurabakokeria dala iru- ditzen jaku.

Hori dala eta, uste dogu, se- gurtasunaren gaia atxakia dala udal taldearen kontrako desgaste kanpaina baterako, edo azken fi- nean, joko politikorako. Horregai- tik Kiñu Gaztetxetik adierazo gura dogu: ez dogu onartuko inok Gaztetxeaz ezelango erabilpen politikorik egin dagiala.

Gura dauanak Gaztetxeko atea- k zabalik eukiko ditu (beti be jarkera sexista, homofobo edo xenof- oboetatik kanpo), baina etorri gura ez dauanak bakean itxi dagiala bakean dagoana. Guk herriaren mesedetan beharrean segiduko dogu eta.

KIÑU GAZTETXEA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, begiruk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo beginu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Orpo



Hanka edo oinaren atzeko aldeari orpoa esaten jaku (orpoá, agoskatuta). Hurrengo esamolde bi honeek be badaukie zerikusia hanketako orpoakaz: "orpoetan ar (arantza) barik" eta "orpoak batzean". Arin baino arinago edo oso bizkor adierazoteko erabilten dira. Orpo berbearen beste esangura batzuk honeexek dira: 1. Arbola edo landarearen oinarria, mahatsondoarena esate baterako; eta 2. Atearen txoria, hau da, bisgerak ipinten diran lekua, atea batera eta bestera mobidu ahal izateko.

ERETXIA

Giza eskubideai obedientzia, injustiziarri desobedientzia



EDORTA ALONSO
OEE Zeanuriko kidea

Azkenengo asteetan, Mikel Zuluaga eta Begoña Huar- teren, Greziatik Euskal Herrira zortzi errefujiadu ekarteko saiakerearen ondorioz, gure in- guruan pil-pilean dago kontzeptu bat: alkartasunerako desobe- dientzia zibila. "Gobernuak eta instituzinoak ez badabe egiten, jenteak eta giza-mobimentuetan gagozanok egingo dogu".

Mikel eta Begok egindako deso- bedia zibil ekimena, duda barik, benetako salaketa politikoa izan da. Gobernuak, euren (edo danon) baliabideakaz, ez badira gai edo ez badabe gura justua dana egin, guk kaleko personok egingo dogu gure baliabideakaz.

Nahiz eta Europak ezarritako mugak eta hesien apurketaren helburua ez dan bete, gure go- bernu eta agintarien bihotz eza eta miseria azaleratu egin dabe ekintzaileak.

Nire ustez, desobedia zibi- laren balore batzuk agerian geratu dira:

1. Gizartearen onura bilatzen dau, hau da, danontzako etxe bat eregiten dau.

"Holango basakeria baten aurrean, desobedia gure eginbeharra da" esan euskun Mikel Zuluagak. Zein da basake- ria? 65 miloe persona euren herrietatik kanpo, indarkeria ekonomikoa, sexuala... eta beste indarkeria mota asko dagoz sufri- duten. 2016an, 5.000 persona hil ziran Mediterraneo itxasoan, 90 mila ume dabilz Europatik norae- zean eta familia barik, Siriako ge- rratean 470.000 dira hildakoak...

"Lege bat bidezkoa ez danean, desobedia da jokabide zuzena" esan eban Mahatma Gand- hik. Europak eta bere gobernuak ezarritako legeak, protokoloak eta itunak ez dira bidezkoak (Europar Batasuna eta Turkiaren arteko

ituna, barbarako), ez deuseelako babesik emoten miseriatik eta he- riotzatik iges egiten dabenai.

2. Persona moduan hazten eta hobetzen laguntzen dau.

"Personago, gizakiago sentidu- ten gara" dino Mikel Zuluagak. Argi dago, geure barruan dauka- guna besteentzako emoten do- gunean, persona lez indartsuago sentiduten gara.

"Desobedia askatasunaren oinarria da. Obedientziak esklabu egiten gaitu" Henry David Tho- rearen berbak dira. Injustiziarren aurrean isildu edo beste aldera begiratzen dauana esklabu sen- tiduten da. Danok pasau gara egoera horretatik.

Egun honeetan be, batzuetan zera entzun izan dogu: "Ezin dogu ezer egin, Gobernuak ez daualako egiten", "Gauzak beste modu baten egin behar dira"... Eta nik galdetzen dot: zuk, zer egin dozu? Gauzak beste modu baten egin behar badira, zergaitik ez dozuz egiten? Noz arte itxaron behar dogu?

"Neuk be egingo neuke" izan da azken egunetako leloa. Behar- bada asko esatea da hori, baina: zuk zer egingo zeunke? Zuk, zer egingo dozu?

Zorionez mundu honetan, euren erantzukizun sozialaren kontziente diran persona asko dagoz:

- Paper bako personak atendi- du eta sendatu egiten dabezan medikuak.

- Gure seme-alaben eskubi- deen alde protestetan daben irakasleak.

- Etxegabeteen kontra burruka- tu egiten daben personak.

Ongi Etorri Errefuxiatuak plata- forman gagozanok Giza Eskubideai zor deusegu obedientzia. Bide horretan prest gagoz desobedi- entziarako.

LUMATUTEN



RUTH LINAZA

Dominak, inok

Beste behin, BEGITUK le-
rrotxo batzuk idazteko
aukerea emon deusta.
Oraingo honetan, sokatirearen
gaineko informazioa eta hase-
rrealdia partekatzeko asmotan
nator.

Aukera ona daukadala uste
dot, zoritxarrez sarritan gai ber-
bera zuoi helarazo arren. Euskal
sokatireak bizi dauan egoeraz
apur bat sakontzeko asmotan
nator.

Hau, handi-mandientzako
kritikea da. Aldez aurretik be
azaldu izan deutset, 2014. ur-
teko garagarrilean, ofizialki na-
zinoartean gure herri zahar hau
sokatiran ordezkatzeko aukerea
lortu genduala Basque Country
lez lehiatuta.

Sokatiran ibiltzen garan euskal
herritar guztiok ordezkatu daike-
gu Euskal Herria, bertoko txape-
la irabazi ezker.

Lehen aldiz aukerea izan
genduanean, instituzino guztien
aldetik babesa eukiko genduala
uste genduan, holan esan eus-

kuen eta egin ziran bileretan hori
ebatzi zan.

Ordurarte berba politik, baina
gero zer... hutsa.

Nazino moduan tiratuteko era-
bili izan genduan kamisetea be
itzuli egin behar izan genduan!
Munduko txapelketan erabilitako
erropa ofizialak itzuli behar izan
genduzan. Eta erabili behar izan-
dako ezinbesteko materiala be
geure boltsikotik ordaindu behar
izan genduan.

Ba haserre adierazoten dot
munduko maila gorenean da-
goan kirol honek, bakarrik taldeen
eta taldeetan parte hartzean do-
gunon babesa daukala. Euskal
Herria ordezkatzeko be, dana
ordaindu behar izaten dogula.
Dana. Entrenetako erabilten do-
gun kantxatik hasita.

Beraz, berba politik telebistan
botaten dozuezano, paparra guz-
tiz hazita dozuela bertan dominak
zintzilikatzen zabilzan handi-
mandi horreei, zorrotz dinotsuet...
benetan babestu kirolariak. Eurak
diralako lorpen horreen erantzule
bakarrak.

Izan ginan, bagara, baina izango
gara? Kirol hau ez dogu diruagaitik
egiten, orain arte be erakutsi izan
dogu hori, baina babesa esker-
tuko geunke. Gure aurretik hasi
ziran hazia ereiten, frutuak lor-
tzean baina lurra, etorkizunerako
be landu behar da. Usteltzen ixten
zagozenok, zuek zarie. Argi euki:
guk geure eskuetan dagoan guztia
baino gehiago egiten dogu.

ZERTZEAN



ANGEL LARREA

"27ko Belaunaldia"ri

2017ko urtailan larogei urte bete dira euskera hutsean idatzirik agertu zala Eguna izeneko lehen egunka-
ria. Sei hilebeteko bizitza laburra ezetu eban. Gerra-denporea zana lez, Bilbo nazionalen kontrolpean jausi
zan, orduan heldu jakon amaiera "Lauaxeta" poeteak bultzatutako proiektu hareri. "Lauaxeta" gure poesia
modernoa aitazindaria da, eta bere lanaren iturri garrantzitsu bat Federico García Lorca idazlea da, "27ko
Belaunaldia" izenagaz ezetuten dan poeta-taldeko partaidea hain zuzen be. Omendu eta, era berean, gogora
ekarri gura dodaz idazle honek honako poema honeguz:

❖❖ "27ko Belaunaldia", poeta handien taldea:
Alberti, Aleixandre, Cernuda, Champourcin, Guillén...
Poesia hutsa, poesia intuitiboa,
metafora, irudi eta sinbolo ugariz beteriko Hizkuntza.
Poesia modernoa eta kultua,
gaur egunerako Poesia.

Federico, poeta! Andaluzia argitsuan sustraitua,
kultura herritarraren eta ijitoen kantorea:
elegiak eta erromantzeak, bertsoetan,
erromero eta tuma loreen usain suabeak, landetan;
ilargi berdea, erregina zeru ilunetan,
beltz eta gorri koloreak nagusi poetaren kopletan.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan
argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu
egiguzuz argitaratzeko baldintzak beginu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Urte amaierak ziklo amaiera eta hasikerea dakar, gurari eta be-
tebeharrak. Orain dala sei urte hasi ziran Areatzan Gorbeiatik
datorren uretan agurtzen urtea. Murgildu eta gero, txanpana
eta langostinoak, eta aurten batutako dirua eskupelota taldearentzat
izan da. Ekimena txirindularien Peña Iturrimorrok antolatu eban. Aur-
ten hiru izan dira (gara) bainuzaleak, hurrengo urterako apuntetako
zerrendea zabalik dago.

Iban Gortazar



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscsl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
hagin klinika
Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarribia
Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalejatu Zerbaita 101
R.P.S. 21/06

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendaketa, n.º 3. 48550 IZEMOIA, Bizkaia
Tel: 000-480839000-000200717

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

AREATZA

Enplegurako orientazio zentroa zabalik astelehen eta eguaztenetan Areatzan



Areatzako enplegurako orientazio bulegoa.

Erredakzioa

Abenduan zabaldu eben barriro Arratiako Enplegurako Orientazio Zentroa Areatzan. Sei hilabetez jardutea dago aurreikusita. Izan be, diru laguntzai dago lotuta eta laguntza honeek, sei hilebetetarako dira.

Enplegu Zentroa Areatzako As-katasun kaleko 34 zenbakian dago eta astelehen eta eguaztenetan egoten da zabalik. Astelehenetan 09:00etatik 14:00etara, eta eguaztenetan 09:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 18:00etara. Barikuetan, Zeanuriko Zulaibar Lanbide Ikastetxera aldatzen da 09:00etatik 14:00etara.

Areatzako bulegoan, lana bilatzeko orientazioa, laneratzeko ibilbideak eta lana bilatzeko tresnak eskeintzen ditue.

Etenkako zerbitzua

Arratiako Enplegu Zentroa 2014ko zemen-dian ipini eban martxan Lanbidek Arteako Kultur Etxean, Arratiako Udalen Mankomunitatearen (AUM) laguntzeagaz, Lanbide-berharginakaz eta Lanbideren bulegoak Arratiara hurreratzeko asmoagaz, baina 2015eko zemen-

dian zerbitzua bertan behera geratu zan, Arteako lokalean komunetara sartzeako egoan irisgarritasun arazoa zala-eta.

Zerbitzua "desagertu" ondoren, AUMek "Orientazio zentro moduan behintzat, sei hilabetez zabaldu" ebatzi eban, Maren Iturbe AUMko Idazkariak BEGITURI azaldutakoaren arabera. Holan, Tokiko Enplegu Planetik bideratuta, 2015eko abenduan Arratiako Enplegurako Orientazio Zentroak zabaldu eban atean barriro, Areatzan, sei hilabetez, lana bilatzeko orientazioa emoteko helburuagaz.

2016ko abenduan, barriro be, maiatzerate zabaldu dauz atek.

Tokiko Enplegu Plana

Galdakaoren eskutik eta Zornotzagaz batera dago Arratia Tokiko Enplegu Planean. "Galdakaok egiten dau kudeaketa asministratibo osoa, berak eskatuten dauz diru-laguntzak eta eroaten dauz espedienteak. Guk geure populazioagaz lagunduten dogu, danok batuta 50.000 biztanle baino gehiago garalako. Galdakaok ia 30.000 biztanle ditu, Zornotzak 17.000 eta Arratiak 14.000. Proiektu guztiak batu eta Galdakaok Tokiko Plana egiten dau" dino Iturbek.

IGORRE

Errotariok alkarteak Errota proiektuaren inguruko erakusketea antolatu dau



Errotaren talde dinamika bat.

Argazkia: Errota.

Erredakzioa

Arratiaren garapenerako sortutako Errota ekimenaren orain arteko ibilbidea erakusteko eta hurrengo pausuk zeintzuk diran azaltzeko,

urtailaren 23tik 27ra erakusketea egongo da Igorreko Kultur Etxeko erakusketa gelan. Erakusketea 10:00etatik 21:00etara egongo da zabalik, eta Errota talde eragileko kideak azalpenak

ZEANURI

Mikel Zuluaga etxean, epaiketearen zain



Zuluaga eta Huarteri harrerea Loiuko aireportuan.

Erredakzioa

Mikel Zuluaga eta Begoña Huarte Euskal Herrira iritsi ziran urtailaren

7an, Grezian bermea pagau eta urteteko baimena lortu ebenean. Aireportuan, familia eta lagunakaz batera, Ongi Etorri Errafuxiatuak pla-



emongo ditue egunero, goizeko 11:00etatik 13:00etara eta arrastiko 18:00etatik 20:00etara. Helburua, proiektua ezetuten dabena eta ez dabena alkarte eta erronkak aurkeztea eta hartu-emonak sortutea da. Bertan, proiektuaren gaineko ekarpenak egiteko aukerea be egongo da.

Errotak arlo publikoa, pribadua, jentarte eta hezkuntza arloak bazean ditu, Arratiaren garapeneraren alde behar egiteko. 2016ko maiatza eta bagilean, Arratia 2020rako erronkak definitu ebezan.

Errotariok alkarteak

Erronkak definitu ondoren, Errotak forma juridikoa hartu eban, Errotariok Arratiako Garapen Sozio-Ekonomikorako Elkartea bihurtuta. Alkarteak Iratxe Goikoetxea kontratau dau koordinatzaile beharretarako eta Areatzan finkatu dau egoitza. 2017rako lehentasunak be zehaztu ditue.

taformakoak be egin eutseen harre-rea. Zapiak, pankartak eta ekintzaile bien berbak, Europako politikak aldatuz edo desobedientzia zibilaren bitartez errefujiaduen egoerea aldatu beharra gogoratu eben.

Euskal Herrian egon arren, Ate-nasera itzuli beharko dira epaiketarako ekintzaile biak, baldintzapeko askatasunean dagoz eta. Epaiketea noz izango dan oraindino ez dakie-la esan deutso Mikel Zuluagak BEGITURI. Orain autokarabanea ekarri ahal izateko gestinoak egiten dabilz.

* **Akats zuzenketea:** BEGITUREN 265. zenbakian Mikel Zuluagaren abizena txarto egon da. Zuluaga agertu da eta Zuluaga da.

IGORRE

Udala eta Osasun Zentroaren alkarlaneko proiektua, praktika ona

Erredakzioa

Udalak eta Igorreko Osasun Zentroak alkarlanean egindako proiektua, Osakidetzaren "praktika onen" lehiaketara aurkeztu eta 5 proiekturik onenen artean geratu da. Hiru gauza sartzean dira bertan: osasun zentzoko itxaron getetan pantailak ipintea, edadeko

personen osasun jabeakuntza bultzatzea eta Igorre Bihotz babesgune izentatzea.

Hiru "praktika" horreek batuta, Osakidetzak praktika onak sarituteko urtero antolatuten dauan Osasun Munduan Integrazioa Lantzeko Lehiaketara aurkeztea ebatzi eban Igorreko Udalak. Proiektua lehenengo bosten artean geratu zan.

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak
Igorreko Industrialdea
Fab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

RUGBY TABERNA
•Egin zaituz bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak
arratiako.zekorrak@gmail.com
http://santxisme.blogspot.com/

NAIARA HORTZ KLINIKA
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
04-631 52 26

OPEL
ibalgane, s. Coop. Ltda.
Eitazpioa, 15
48330 LEINZA (Bizkaia)
Tfn. 631 33 30 - 631 31 31
Fax 631 36 15

ARRATIA

**Arratiarrakaz berbetan
berbaldi zikloa antolatu
dau EAJ-PNVk**

Josu Erkoreka.

Erredakzioa

Josu Erkoreka, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua eta Jauriaritzaren bozeroalea izango da berbaldi zikloan parte hartuko dauan lehena. Berbaldi bi izango dira. Urtilaren 26an izango da lehena Igorreko Kultur Etxean, 19:30etik aurrera.

Arratiarrakaz berbetan ekimena berba egin gura dabenak berba egiteko eta entzun gura dabenak entzuteko gunea izango da. Saio bi egongo dira: bata igorren hilaren 26an, eta bestea Zeanurin zezeilaren 17an. Helburu nagusia topagunea sortzea da galderak egiteko, zalantzak, ideak edo kezak planteetako, eretxiak adierazoteko eta, "egoki jotzen bada", proposamen aberasgarriak egiteko. Ziklo irekia da,

hau da, biztanle guztiai zuzendua eta hizlariak eta parte hartzaileak gaur egun erakundeetako agendak marketan dabezan eta euskal gizartearen kezka nagusi diran gaien gainean egingo dabe berba. Arratiako EAJ-PNVkoen esanetan, "egitasmo aberasgarria izango da parte hartzaile guztientzat".

Josu Erkoreka eta Aitor Esteban

Zikloa hilaren 26an hasiko da Josu Erkoreka, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuagaz. Zezeilaren 17an barriz, Aitor Esteban Kongresuko bozeroale jeltzalea izango da Zeanuriko Kultur Etxean.

Ekimen honetan parte hartuko daben beste personeren datuak hurrengo asteotan zehaztuko dira.

ARRATIA

**Arratiako eleizak gurasoentzako
ikastaroa antolatu dau****Erredakzioa**

Arratiako eleizeak, Lagungo alkar-tearen laguntzeagaz, familian pozik hazteko helburua daukan ikastaroa antolatu dau gurasoentzat. Hiru saio izango ditu: urtilaren 28an, zezeilaren 11n eta martiaren 4an, arrastiko bostetatik sei terdiak arte.

Lagungo, familia orientazinarako irabazi asmorik bako fundazioa da. Orientazio eta familia bitartekaritzan egiten dau behar.

Ikastaroan familia oinarizko sozializazio gune moduan eta



seme-alabai ipini beharreko arauak eta mugak landuko dira. Antolatzaileren ustez, gurasotasun positiborako, sozializazioa eta emozino elikadura behar dira.

IGORRE

**Gazteentzako
sagardotegira
urtekerea****Erredakzioa**

Igorreko Gazteria Zerbitzuak martiaren 11rako sagardotegira urtekerea antolatu dau. 18 eta 30 urte bitarteko gazteentzat da eta Petritegi sagardotegiaz gainera, Zarautz eta Hernani be bisitauko dabez.

Igorretik 11:30ean urtengo dira Zarautzera joan eta han poteoa egiteko. Bazkaria 15:00etan izango da Petritegi sagardotegian. Ondoren Hemanira joan, goizaldeko 03:00etan bueltako autobusa hartzeako. Txangoak 30 euroko prezioa dauka.

Izen emotea

Parte hartu gura dabenak izena emon leikie zezeilaren 17ra arte, Gazteria zerbitzuko bulegoan, astelehen, eguazten edo barikuetan 17:00etatik 19:00etara edo 688 898 765 telefonora deituta.



ARRATIA

**Drogen kudeaketearen gaineko
gazteentzako ikastaroak
antolatu ditu Mankomunidadeak****Erredakzioa**

Arratiako Gaztelekuetako eta Gazte Planeko begiraleakaz lankidetzan, Arratiako Udalen Mankomunitateko (AUM) Adikzioen Prebentziorako Zerbitzuak, Drogak: plazerren eta arriskuen kudeaketa izeneko tailerra antolatu dau. Ai Laket! alkartekoak emongo dabe hori tailerri, urtailaren 20an Bediako liburutegian eta 27an Zeanuriko Kultur Etxean.

Alaia Ozerinjuregi AUMeko Adikzioen Prebentzio Komunitario teknikariaren arabera, tailerren helburua, droga erabilereagaz lo-

tutako babes alderdiak sustatzea eta arriskuen eragina murriztea da. "Hau da erabilerearen adina berandatzea, adin txikiko gazteen erabilerak murriztea eta erabilerariskutsuak ekiditea".

Adinari egokitutako tailerrak

Bedian eta Zeanurin tailer bina emongo dabe Ai Laket!-ekoak. Izan be, 17:00etatik 18:30era, 12 eta 14 urte bitarteko gazteentzatzat izango da eta 18:30etik 20:00etara, 15 eta 16 urtekoentzatzat.

Izena Gaztelekuetan edo Arratiako Udalen Mankomunitatean emon daiteke.



ARRATIA

Urte hasikerako asmo onak**Erredakzioa**

Urte hasikerako kanpaiakadakaz batera, hasten dan urte barria hobea izan daiten, zoriontasunaren bidean eroango gaituen asmo onez beteten gara. Baina asmo horreetako gitxi batzuk baino ez dira gauzatzen, ohiturak eta egunerokotasunak oztopo bihurtzen diralako errutinak aldatzerako orduan.

Aste batzuk pasau diranean, gure irakurleai itaundu gura deutsegu ea asmo horreek beteteko helburua mantenduten daben eta horreek gauzatzeko hainbat ohitura aldatuteko gai izan diran.

Hau da:

Urte barriko asmoak bete guran jarraituten dozu?

- Bai. Konbentzimentu osoz.
- Bateri behintzat eusten deutsat.
- Ez. Lehenengo astean ahalegindu nintzan baina gero bertikora bueltau naz.

**Urri lehenengoaren 25eko
hauteskundeak**

Aurreko inkestan itaundu guntzen irakurleai ea uste eben urri lehenengoaren 25eko hauteskundeetako emoitza eragina izango eben Espainiako gobernuaren sortutako negoziatzinoetan. Erantzun ebenen artean bardinke tea egon zan, %50ak baietz uste eban eta beste %50ak ezetz.

Argazkigintza / fotografia
"Fotografia eta argazkigintza" ikas-erakundeak
2 ordu astean / 2 horas semanales
Orbita irekita.

desarrollo de la autoestima a través de la música (Ines Medina). Castellano
Intensivo 6 sábados
10:00-13:30

Irakurketa tailerra
Astelehen bat hilan 17:00-18:30

Antzerkigintza familiar
Orbita irekita eta ikas-erakundeak
antzerkiak

Dantza afrikarrak
Ikas-erakundeak
3 zatiak hilan / 3 sábados al mes
10:30-13:30

Tai chi
Ezuzteak/miércoles 18:00-20:00

GERRA ZIBILA

Gorbeiaiko gudariak

Arratia be sartzean zan Arabako frontea deitutakoan, gerra hasikeratik gudari abertzale gitxi egon baziran be, salbuespena Gorbeia aldean daukagu; izan be, bertan Euzko Mendigoxale Batzako "Lenago il" eta "Zergaitik ez" batailoiak luzaroan burukatu ziran.

Alvaro Rabelli

Gauza jakina da errepublika sasoiko indar abertzaleak (EAJ, ANV, STV, EMB) ez ebezala euren milizianoak –geroko gudariak– gerrara bialdu ha biztu bezain laster. Neutraltasuna aldarrikatu eben. Ezkerreko taldeetako milizianoak izan ziran hilabetetan errepublikearen alde armaz burukatu ziran bakarrak. Gerra hasieran, esaterako, EAJko milizianoak jagole lanak egin ebezan konbentuetan, elizetan, eta buruzagi eskuindarren etxeetan. Baina, gauzak berehala hasi ziran aldatzen; alde batetik, ezkerreko taldeen (sozialistak, komunistak, anarkistak, ezkerreko errepublikarrak) balizko iraultzeari bildur jakolako; eta bestetik, Francoren armada, batez be Gipuzkoan, aurrerapen handiak egiten ego-lako. Holan, EAJk bere milizianoak Loiolako konbentuan batu ebazan. Euzko Gudarostearen eramuina zan. 1936ko urri lehenaren amaiera aldera lehenengo konpainia abertzaleak fronterantz aruten eben. Holan egiten hasi ziran ANV eta STV taldeak be.

Bitxiagoa izan zan EMBren jokabidea. Bere buruzagi asko, tartean Eli Gallastegi "Gudari", gerran parte hartzearen kontra azaldu ziran, ha kontua espainarrarena baino ez zalakoan, eta ez euskal independentistai egokian

1936ko urri lehenaren
30erako badogu
mendigoxaleen lehen
konpainia, Mikel Alberdi
deitutakoa. Ha izan zan
"Lenago il" batailoiaren
hasikerea



1937ko maiatzaren 3ko Eguna egunkaria.

zer edo zer. Hala eta guztiz be, bere jarraitzaileak, buzuzagiai jaramon egin barik, hasikerako euskal milizietan izena emoten hasi

ziran. Mikel Alberdi mendigoxale gipuzkoarra, seguru asko, izan zan lehenengo hildakoa miliziano abertzaleen artean. Bidanian jau-

si zan 1936ko abuztuaren 16an.

Jagi-jagi
Euzko Mendigoxale Batza (EMB)

Arratia
Ubide eta zeberiko
euskerea
eta kulturearen alde

Hamabostero
Degitu zeure etxean

Egin zaitez zeu be

Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ateratako produktuak.

Hamabostean behin sari itzelen zozketan parte hartuko dozu.

Zertu Kultur Elkarteak
berritoki plaza 21. 20172 Artea

lizen-abizenak:
helbidea:
herria:
Telefonia:
E-posta:
urteko kuota aukeratu: 35€ 55€ 75€

begitu
milla mila erretan

EAJtik bereizitako erakundea izan zan errepublika sasoiaren. Ez zan ailegau alderdi politikoa izatera, baino askok dinoe gerreagaitik ez balitz, ha erakundea alderdi bihurtuko zala. Bere jatorria Aberri taldean aurkitu behar dogu. 1930ean Aberrik Comunion Nacionalistagaz bat egin eban EAJ alderdia birsortzeko. Aberritik, hain zuzen, etorri ziran EMBko buruzagi ezagunenak, Eli Gallastegi "Gudari", Trifon Etxebarria "Etarre" eta Angel Agirretxe. 1932tik aurrera EAJren joera estatutista ikusita EMB sortu zan abertzale independentistak bere inguruan batzeako. Jagi-jagi, Yagi-Yagi sasoiko ortografian, euren prensa organo ofiziala izan zan Angel Agirretxeren zuzendaritzapean, aldizkari independentista inondik be. 1934tik aurrera EAJgazko hartu-emonak nabarmen gaiztatu ziran eta alderdi sozialistako kideakaz be liskar handiak euki ebezan EMBko kideak.

Gerrea biztu zanean, buruzagiak interbentzionista eta ez-interbentzionisten artean banandu ziran. Atzenez, gerreak hilabeteak erozanean, Durango lehengoak nagusitu ziran eta gerran parte hartzea erabagi eban.

"Lenago il" eta "Zergaitik ez"

Gerran parte hartzearen ondorio zuzena mendigoxaleen lehenengo konpainiak eratzea izan zan. Holan, 1936ko urri lehenaren 30erako badogu mendigoxaleen lehen konpainia, Mikel Alberdi deitutakoa. Ha izan zan "Lenago



Gudariak Gorbeiaiko tontorrean.

il" batailoiaeren hasikerea. Abendurako mendigoxaleak baegozan Areatzako koartelean, Gorbeiaiko sektorean. Urrean mendizaleak izatean, egoki ikusi ebezan frontearen defensarako hain garrantzitsua zan Gorbeia jagoteko. "Lenago il" batailoia izena hartu eban Sabino Aranak Larrinagako espetxean idatzitako olerki batetik. Bere komandantea Mikel Ayerdi zan eta gudari gehienak Gipuzkoa, Abadiño eta ezkeraldeko herrietakoak ziran. Euzko Gudaroste barruan Euzkadiko 33. batailoia izan zan. Unerik gorenean 643 gizon izatea lortu eban, lau konpainia fusilero eta konpainia bat ametralladora. "Zergaitik ez" batailoia, Euzkadiko 68.a, Santurtzin kokatu zan, Bilboko Kastrexana auzoko bateria antiareoaren ardura eukan eta erreserba batailoia egin eban. Bere komandantea Eugenio Orbegoza izan zan, eta guztien nagusi Angel Agirretxe ginekologoa eta EMBko buruzagi politikoa. Tirabira ugari egon ei ziran bigarren batailoia hori eratzeko, handik bere izena.

Gerrea Gorbeiaiko tontorrean

1937ko martiaren 31n, Bizkaiko frontearen kontrako erasoaldia hasi zanean, "Lenago il" batailoia Gorbeiatik Aramaioa zabaltzen zan. Egun haretako gaubean erreketen indar txiki baten erasoak ustekabean hartu eban Gorbeiaiko kurutzean egoan Uria tenientearen konpainia. Kurutzeta itxi eta Berretin alderantz atzera egin behar izan eban. Ha-ta guzti be, gudariak lortu eban arerioa tonto-

rrean bertan geldiarazotea, erreketen nafarren aurrerapen handi- goa ebitauz. Hurrengo eguneko gaubean gudariak kontraerasoa prestatu eban kurutzeta berreskuratzearren, baina ez eban ezer lortu, eta baja ugari euki ebezan. Aprilaren bian, goizean, Padura batailoiaeren laguntza jaso eban mendigoxaleak eta, atzenez, Gorbeiaiko tontorra eurenganatu eban.

Ekintza horren ostean batailoia bertan iraun eban baja asko- rik barik. Aprilaren 20an, Bizkaiko frontearen kontrako erasoaldia indartu zanean, batailoia Gorbeiaiko leku lasai baten irauan, burrukaldi gogorrenetatik urrun. Aprilaren 26an, Euzko Jaurlaritzaren aginduz, EAJko beste batailoia batzuk batera, 16. brigada, IV. dibisioa izatera pasau zan.

Maiatzaren 6aren eta bagilaren 10aren artean Gorbeian jarraitu eban 14. brigada osotuz, harik eta Enkarterrietarantz atzera egiteko agindua jaso arte. Bagilaren 23an bat egin eban batailoia biak, "Lenago il" eta "Zergaitik ez" batailoia, holan berrosotu zan baja asko euki ebalako. Gauzak holan, geroko berrantolaketearen ondorioz, batailoia barriak 154. brigada, 54 dibisio zenbakia hartu eban. Bilbo frankisten esku jausi ostean, batailoia Kantabriara pasau zan, Colindresen akoartelau zan eta abuztuaren 13an, El Gordon-eko posizioetan bonbardatu eban. Gorabehera gehiago barik iraun eban Kantabriako frontea jausi arte, orduan, amore emonda frankisten esku gelditu zan.

ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net

Basoak garbitzeko makineria

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKIRUA ETA SALMENTA

SOKATIREA

Badaiotz taldea 4x4 Euskadiko txapelduna**Erredakzioa**

4x4 Euskadiko Txapelketan Gasteizko Badaiotz taldeak urrezko domina irabazi dau. Bertan, Ruth Linaza Lemoakoak eta Izaskun Atutxa Dimakoak hartu eben parte.



Abenduaren 17an Kortezubin jokatu ziran Goma Gaineko Euskadiko 4x4 Sokatira Txapelketaren 300 eta 260 kiloko finalak. Andrazkoetan 260 kiloko kategorian Badaiotz taldea izan zan onena eta gizezkoen 300 kilokoan, Beti Gazte.

Badaiotzen atzetik Berriozar eta Bizindar sailkatu ziran.

Taldea jente bila

Urtailean, Goma Gaineko Euskadiko 6x6 Sokatira Txapelketea hasi da, baina 4x4ko Euskadiko txapeldunak ez dabe parte hartuko jente faltan dagozalako.

ERRUGBIA

Arratiko Zekorrak taularen erdikaldean**Ainhoa Duñabeitia / Erredakzioa**

Arratiko Zekorrak taldeak ezin izan eban irabazi urtailaren 14an Heraniren kontra jokaturako urteko lehen partidua. 19-10 galdu eben arratiarrak. Hamahiru jokalarigaz jokatu eben Zekorrak partidu hau. Hurrengo partidua, Elorrioren kontra jokaturako dabe zezeilaren 4an, Igorreko San Txisme errugbi zelaian.

Aldagelak barriztuten dabilz

Errugbi zelaiko aldagelen eraikina barriztatuten dihardue. Fatxadea konpondu eta pintau egingo da, teilatuan asfalto tela geruza barria ipiniko dabe, lehioak aldatuko ditue eta aldagela barruko hormak azulejoz estaliko dira 1,5 metroko altueraraino. Zorua be barriztu eta ikuslentezako komun barriak ipiniko ditue.

Lanak ABI enpreseari adjudikau jakoz, 39.665,56 eurotan.

**Errugbi zelaiko aldagelak.**

ZIKLO-KROSA

Manu Quintanillak, brontzezko domina Espainiako Ziklo-kros Txapelketan**Erredakzioa**

Urtilaren 7an jokatu zan Valenzian Espainiako Ziklo-kros Txapelketea. Master 40 kategorian Manu

Quintanilla igorreztarra podiumera igo zan hirugarren eginda.

Sano ondo urten zan Igorrekoa eta lehenengo postuetan mantenu zan hirugarren bueltara arte, baina gero jausi egin zan eta ezin izan zan lehenengo posturako lehian sartu.

Hirugarren postu horregaz sano amaiera ona emon deutso Quintanillak aurtengo ziklo-kros denporaldiari. Zilisteak, denporaldia "irregular" moduan baloretan dau, Bizkaiko txapelduna izan da eta podium asko egin ditu, baina podium-era igon barik be geratu da batzuetan. "Berrizko Euskadiko Txapelketan, hirugarren postua ia ikutu neban, baina laugarren egin neban".

PELOTEA

Txapelik ez etxe koentzat**Erredakzioa**

Urtilaren 5ean jokatu ziran Dimako Gabonetako II. Txapelketako finalak, Kadete, Gazte eta Nagusien mailakoak. Kadete mailan, Etxeita eta Egaña, Kante-ro eta Garaizar dimoztarrari nagusitu jakien 22-20; Gazte mailako buruz burukoan, Artolak jantzi

eban txapela eta Nagusietan, Albizuk eta Galarzak 22-19 irabazi eutseen Ziarrusta dimoztarrari eta Lemoako Etxebarriari.

Igaz baino jente gitxiago egon zan finalak ikusten, baina maila oneko partiduak izan ziran eta antolatzaileak balorazino positiboa egiten dabe kirolaren alde-tik.

**Finaletan parte hartutakoak.**

MENDIA

Sari ekonomikoak Kolazinoko Mendi Eguneko irabazleentzat**Erredakzioa**

III. Kolazinoko Mendi Eguna apirilaren 8an izango da Bedian. Aurtengo edizinoan lau modalidade egongo dira: mendi martxea, mendi lasterketea, BTT lasterketea eta Kadete/Junior mendi lasterketea. Izena martiaren 31rarte emon daiteke www.kirolprobak.com

webgunean. Zezeilaren 18a baino lehenago izena emoten dabenak Asics motxila baten zozketan sartuko dira.

Aurten, barrikuntza moduan, urteroko garaikurrak gainera, kategoriatxeko lehenengo sailkatuak sari ekonomikoak izango dabez: 300 euro irabazleak, 200 euro bigarrenak eta 100 euro hirugarrenak.

**Paule Zenikazelaia, igazko irabazlea andrazkoetan.**

MENDIA

Bidea ekipatzen hasi da Alex Txikon**Erredakzioa**

Beha kanpalekua eta Lehen kanpalekuan artean dagoan izotz-jausia ekipatzen hasi dira Txikon eta bere ekipoa Everest-erako espedizinoan. Txikonek bere blogean azaldutakoaren arabera, aste bi inguru emon dabe behar hau egiten. "Everest eskalatzeko erronkan, zati honeri deusat errespetu gehien; bildurra emoten deusta denpora lar emotea honetan" dino lemoaztarrak.

FUTBOLA

Beharrezkoa eban garaipena lortu dau Arratiak**Erredakzioa**

Denporaldi honetan andrazkoen ligako Bigarren Mailan dago Arratia eta garesti daukaz garaipenak. Urtea atzenengo postuan amaitu eban, baina Gabonetako atsedendialdiaren ostean, urtilaren 15ean, hain beharrezkoa eban garaipena lortu eban Berriozarrei Urbietan 3-0 irabazita. Hamaseigarren jardunaldiaren ostean, 11. postuan dago, 16 puntugaz.

Hurrengo partidua, urtilaren 29an jokaturako dau Mulier taldearen kontra etxetik kanpo.

Gizezkoen Arratia A, hirugarren

Oso bestelakoa da Arratia A gizezkoen taldearen egoera. Nahiz eta urtilaren 14an, atzenengo partidua bardindu San Juan Aren kontra golik egin barik, hamazazpi jardunaldi eta gero, 3. postuan dago 32 puntugaz. Hurrengo partidua Galdakaon jokaturako dau Galdakao Aren kontra.

Arratia B taldeak 4-0 irabazi eutsan San Antonio taldeari jokaturako atzen partiduan. Holan, 14. jardunaldiaren ostean, 8. postuan dago 20 puntugaz. Hurrengo partidua Igorren jokaturako dau Otxarkoaga B taldearen kontra 21-22ko astegoienean.

**Berriozarren kontrako partidua. Argazkia: Arratia.**



begitu
arratia ubide zeberio

ez da debalde



**"Albait gehienok apur bat emon daigun
gitxi batzuk dana emon ez dagien".
Izan zeu be Begitu-laguna!**

DISKOA

Ager Barragan: "Estilo finkaketa prozesuan egindako sei kanta dakar Zer? diskoak"

Uckaia taldeak bere lehen diskoa atera eban urtailaren 5ean. Galdakaoko Hamarrecords estudioan grabatu dabe eta Zer? izenpean sei kanta batzean ditu. Ager Barragan taldeko bateria joleak emon deusaz BEGITURI zehaztasun guztiak.



Lander Txabarri, Aitor Ipiña, Ager Barragan eta Lander Elorriaga.

Erredakzinoa**Sei kanta batzean dira zeuon lehenengo diskoan. Zeintzuk dira kanta honeek?**

Diskoak Zer? izena dauka eta sei kantaz osotuta dago. Kantak: "Zer?", "Itsu", "Putzuan", "Alone", "Dachau" eta "U.C." dira.

Ze musika mota egiten dozue?

Ba egia esan 2014an taldeagaz hasi ginanean ez geunkan argi ze musika estilo jotzen genduan, baina urte bi honeetan gure estiloa finkatzen joan gara eta orain Hardcore melodikoa egiten dogula esan geinke. Urte bi honeetako estilo-finkaketa prozesuan egindako 6 kanta sartu doguz diskoan.

Noz hasi zinien diskoa grabetan? Zein izan da prozesua?

Grabaketa prozesua 2016ko abuztuaren 1ean hasi genduan Galdakaoko Hamarrecords estudioan. Bertan 9 egun pasatu genduzan grabetan. Gure lehenengo aldia zan estudio batera sartzean

ginala eta egia esan gure esperientziarik onena izan da talde moduan. Inoz baino gehiago ikasi dogu musika eta musikaren munduari buruz. Horrek, nire ustetaz, musikaren aldetik hobekuntza itzela ekarri deusku taldekide bakotxari.

Diskoaren azala nok egin dau? Beste kolaboraziorik euki dozue?

Grabaketearen eta masterizazioaren ondoren diskoaren azala eta gorputzagaz hasi ginan eta horretarako Mary Guijarro artistaren eskuetan itxi genduan. Baina arazo personalak zirala-eta proiektua bertan behera itxi behar



izan eban eta guk Joseba Sagastigaz batera amaitu genduan diseinua eta maketazinoa. Ondoren Sarbide Music enpreagaz kontaktuan jarri ginan diskoaren kopia ekoitzi ahal izateko eta tratu ikaragarri baten ostean bakarrik diskoa aurkeztea falta jakun.

Urte bi honeetan kolaborazio pare bat izan dogu bai taula gai-

nean, adibidez Sarkor taldeko Gertzagaz; baita diskoan be, Zeinke taldeko Jokin Uriategaz. Baina batez be lagunai eskerrak emon behar deutseguz euren izan dalako kolaboraziorik handiena.

Pozik zagoze emoitzeagaz?

Bai sano pozik. Disko potentia dakargu eta uste dogu jentek gozatu egingo daua.

Kiñu Gaztetxean aurkeztuko dozue? Arratiako beste inon be emongo dozue kontzertuak diskoa aurkezteko?

Bai, hilaren 27an aurkeztuko dogu Igorreko Kiñu Gaztetxean Zeinke taldeagaz batera. Oraingo ez daukagu beste kontzerturik lotuta baina espero dogu aurrerago kontzertu gehiago izatea.

LIBURUA

Judith Mendesek Mas alla de los sueños nobelea aurkeztuko dau**Erredakzinoa**

Liburuaren aurkezpena urtailaren 27an, barikuan, izango da, arrastiko seiretan Lemoako liburutegian. Bertan, Judith Mendes lemoztarrak, bere *Mas alla de los sueños* nobela erromantikoa aurkeztuko dau.

Judith Mendes brasildar jatorrizkoa izan arren, gaztelaniaz idatzi dau bere lehenengo eleberria. Izan be, 20 urte dira Lemoan bizi dala eta gaztelania aukeratu dau maitasun kontakizun erromantiko honetarako.

Seleer argitaletxeak argitaratu dau nobelea.



www.begitu.org

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115

**Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com**



ONDAREA

San Kristobal ermita inguruan indusketak egiten hasiko dira

Erredakzioa

Orain dala 25 urte inguru, San Kristobal ermitearen ondotik pasetan dan bidea egitean, VIII. eta X. mendearen bitartean datan nekropolia topau eben. Inguru horretan badago beste eremu bat informazio gehiago emon ahal dauana. Izan be, badirudi sasoi haretan asentamentu bat egon zala hor. Bizkaiko Foru Aldundiak indusketa horreek egiteko konpromisoa hartu dau.

Nekropoliaren eremua ez zan guztiz ustiatu eta Igorreko Udalak Foru Aldundiari planteau eutsan horren gaineko interesa. Gero Aranzadi Zientzia Elkarteagaz ipini zan kontaktuan. "Alfredo Moraza

arkeologoagaz egon ginan eta esan eban kanpoan topautakoa ikusita ermita barruan zezer tope-tako aukerak badagozala. Georradarra pasau eben ermita barruan, eta enterramentuak izan eitekezan pare bat gune topau ebezan eta beste pare bat elementu ez dagozanak oso argi eraikinekoak diran ala ez" azaldu deutso BEGURI Beinat Anzola Igorreko alkateak.

Txosten horregaz Foru Aldundira jo eta indusketak egiteko baiezkua emon eben han.

Ikerketea

Dokumentuak ikertuten hasiko dira aurren; hau da, papeletan dagoan informazio guztia, datazioa eta abar batzean hasiko

dira; baita kanpoko nekropolia akotetan be. Hurrengo lana izango litzateke ikustea norantza luzatuten dan nekropolia, beste tenpluren bat agertu leitekela.

Getaluetako kobazuloetan be indusketak egingo dituela baieztatu dau Foru Aldundiak. Herriko kobazuloen katalogoa osatzen ari da Igorreko Udala eta euretako baten erromatar garaikoak edo, hasierako datuetatik aurreragoak izan daitekezan elementuak topau diranez, azterketa arkeologikoak egingo ditue 2017 urtean.



San Kristobal.

KONTZERTUA

Uckaiak bere lehenengo diskoa aurkeztuko dau Kiñu Gaztetxean


Erredakzioa

Uckai eta Zeinke talde arratiarrak kontzertua eskeiniko dabe urtailaren 27an, iluntzeko 20:30ean Igorreko Kiñu Gaztetxean. Bertan Uckai taldeak, urtailaren 5ean kaleratutako bere lehen diskoa aurkeztuko dau.

Sei kanta batzean dauz Zer? izeneko diskoak. Taldea 2014an sortu zan Areatzan. Hainbat lagun taldetik pasau ostean, lau dira egungo partaideak: Aitor Ipiña, bajua eta abotsa; Lander Txabarri,

gitarra eta kora; Lander Eloorriaga, gitarra eta Ager Barragan, bateria. Taldeak Hardcore melodikoa egiten dau.

Zeinke taldea be 2014an sortu eben Zornotza, Bedia eta Lemoako hiru lagunek. Taldeak disko bat kaleratu eban 2016an, *Sormena, kementa* titulupean. Kolazinoko Mendi Eguneko abestia be eurak sortutakoa da. Zeinke, Jon Uriartek (gitarra eta abotsa), Pablo Ruizek (bajua) eta Mikel Muesasek (bateria) osotuten dabe.



ZINE KLUBA

Edward Snowden-en gaineko dokumentala Igorren

Erredakzioa


Hilean behin eskeintzen dau Igorreko Zineklubak ondo aukeraturako pelikularen bat. Zezeilaren 2an izango da hurrengoa, Laura Poitrasek zuzendutako *Citizenfour* (AEB, 2014) pelikula hain zuzen be. Hitzordua, betiko lez, 20:00etan da Igorreko Lasarte Aretuan.

Sinopsia

2013ko zezelean, Laura Poitras, "Ci-

tizenfour" dalako batek sinatutako korreo elektroniko zifratuak jasoten hasi zan. Honeetan, mundu guztian zehar beste agentzia batzuek alkarlanean NSAK zuzenduriko zaintza programa ilegalen probak eukazala baieztatzen eban. Bost hilabete beranduago, Glenn Greenwald eta Ewen MacAskill kazetariak batera Hong Kongera joan zan gizon anonimo bategaz (Edward Snowden) biltzeako. Topaketa honeetara kamara bategaz joaten zan beti. Azken

emoitzea dokumental honetan gertatzen dan istorioa da.



DUNBA

Areatzako ikasleak udaletxean

Areatzako eskolako 5. eta 6. mailako ikasleak

Aurrekontuak dirala eta, abenduaren 13an Areatzako eskolako ikasleak udaletxera joan ziran herria hobetuteko proposamenak aurkeztuten.

Udaleko ordezkariak, postontzi batzuk ipini dabez herritik, herritar



guztiak euren proposamenak jakitera emoteko. Areatzako eskolako ikasleak be ekintza honetan parte hartu eben. Udaletxera joan aurretik, geletan zera aztertu eben:

- Zer dan aurrekontua.
- Udalak nondik jasoten dauan dirua.
- Udalaren gastuak.

Herria hobetuteko proposamenak zerrendatu ebezan.

Areatzako eskolako Lehen Hezkuntzako ikasleak 2016ko abenduaren 13an udaletxera joan ziran euren proposamenak aurkeztuta.

Hiru zinegotzik, Idoia Ruizek, Jose Luis Madariagak eta Maitane Diezek, harrera egin eta Udaleko

funtzionamentua azaldu eutseen: langileak aurkeztu, euren lana zein dan azaldu, eraikineko leku desbardinak erakutsi, azkenik osokobilkura aretara joan eta Udalak dirua nondik jasoten dauan eta zeintzuk diran gastuak azaldu ostean ikasleak euren proposamenak bota ebezan.

Herria hobetuteko idea asko

atera ziranez guztien artean boto gehien izan ebezenak honeek izan ziran:

- Karpoko zelaian skate-pistea edo tirolina edo futbol zelaia egitea.
- Liburutegia zabaldutea.
- Txakurren kaken arazoa konpondutea.
- Katuak edozein lekutan ez elikatzea.



Areatzako ikasleak udaletxean.



- Eskolako patioan argiak jartzea.
- Erreka ondoko pasean argiak eta hesia ipintea.

Udaleko zinegotziak esan eutseen ahalenginduko zirala proposamenak lehentasunen arabera ordenetan batzar baten eta ondoren eskolara joango zirala guztien bari emoten eta martxan ipinten.

Gabonetako oportetan lan batzuk egin dira, adibidez: txakurkak batu, Ospitaloste kaleko kristalak kendu, frontoiko argiak ipini...

Ikasleak espero dabe proposamen guztiak laster beteta egotea.

AGENDEA

URTAILAK 17
DIMA

Hilaren 20ra arte Sahararen aldeko janari bilketea. Gauzak batzeako lekuak: udaletxea, eskolea eta Igor-en dendea.

Hilaren 27ra arte, Yoga, Pilates, Eskulanak, Gimnasia hipopresiboa, Zunba eta Entrenamentu funtzionala ikastaroetan izena emateko epea zabalik.

IGORRE

17:00etatik 19:00etara, zezeilaren 17ra arte, astelehen, eguazten eta barikuetan martiaren 11n sagardotegira urteerako izena emateko epea zabalik Gazteria Zerbitzuko bulegoan (Kultur Etxea). 18 eta 30 urte bitarteko gazteentzat. 30 euro personako.

Hilaren 29ra arte, Kiñu Gaztetxeko Artisanu serigrafia ikastaroan izena emateko epea, torontile@gmail.com helbidera idatzita edo 622 390 883 telefonora deituta.

URTAILAK 18
DIMA

19:00etan, Dimako Udalak, Dimako eskoleak eta Guraso Alkarteak antolatuta, "Familian eta eskolan bardintasuna eraiten" Marian Morenoren ikastaroa. Eskolan.

LEMOA

19:00etan, Jai Batzordearen urteko

lehenengo batzarra udaletxean.

URTAILAK 19
IGORRE

19:00etan, txalaparta tailerra Kiñu Gaztetxean. Edonok parte hartu leike.

URTAILAK 20
BEDIA

Zezeilaren 5ean Alto Campoo-ra eskiatzera

joateko izena emateko azken eguna. Ganguren Mendi Taldeak antolatuta Udalaren laguntzeagaz.

17:00etan, 12-14 urte bitartekoentzat eta 18:30ean, 15-16 urtekoentzat, "Drogak: plazerren eta arriskuen kudeaketa" ikastaroa Ai Laket! alkartearen eskutik. AUMk antolatuta.

IGORRE

09:00etan, Gurutze Gorriak antolatuta, mendi ibilaldia Igorre-Solaguren-Arraibi. Farnaziatik

urtenda. Izena Gurutze Gorrian emon edo 94 673 62 62 telefonora.

LEMOA

Patchwork ikastaroan izena emateko azken eguna. Udaletxean.

Ganzabal Mendi Taldeak Asanblada Orokorra.

URTAILAK 21
IGORRE

22:00etan, zinea *El faro de las orcas*. Lasarte Aretoan.

URTAILAK 22
AREATZA

08:00etan, Lamino Mendi Klubak antolatuta Egoarbitza mendira urtekera. Eitzaga-Aixola-Egoarbitza (733 m.)-Eitzaga. Eleizako portikuan.

Goibeia Parke Naturalak antolatuta, Iñaki Garcia Uriberen laguntzeagaz Orozkon dagoan Goikiria ermitari bisitea.

DIMA

11:00etan, Igitie Arratiako Baserritar Agroekologikoen azokea.

IGORRE

17:00etan, zinea *Peppa Pig y las botas de oro*; 19:30ean *El faro de las orcas*. Lasarte Aretoan.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako mendi urtekera. Tangorri (845 m.)-Irulegi (893 m.)-Pagadi (898 m.).

ZEBERIO

Austarri Mendi Taldeak mendi urtekera. Ganeroitz (561 m.)-Eretza (887 m.).

URTAILAK 23
BEDIA

Zezeilaren 3ra arte, zezeilaren 17tik 19ra Baqueirara eskiatzera joateko izena emateko epea zabalik. Ganguren Mendi Taldeak antolatuta Udalaren laguntzeagaz.

IGORRE

Hilaren 27ra arte, 10:00etatik 21:00etara Errotariaren alkartearen *Arratia garapenerantz* erakusketea. Azalpenak 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Erakusketeta gelan.

URTAILAK 25
IGORRE

19:00etan, Arratiako Korrika Batzordearen batzarra. Kultur Etxean

URTAILAK 26
IGORRE

19:30ean, EAJ-PNVk antolatutako *Arratiarrakaz berbetan* zikloko lehenengo berbaldia. Josu Erkoreka. Kultur Etxean.

URTAILAK 27
BEDIA

18:15ean, hilaren 29ra arte, eski urtekera Baqueirara. Udaletxe ondoan.

IGORRE

20:30ean, Uckia eta Zeinke taldeen kontzertuak Kiñu Gaztetxean.

LEMOA

18:00etan, Judith Mendes-en *Más allá de los sueños* liburua aurkezpena.

ZEANURI

17:00etan, 12-14 urte bitartekoentzat eta 18:30ean, 15-16 urtekoentzat, "Drogak: plazerren eta arriskuen kudeaketa" ikastaroa Ai Laket! alkartearen eskutik. AUMk antolatuta.

URTAILAK 28
AREATZA

20:00etan, The Bilboes Three taldearen kontzertua The Quiet Corner-en.

BEDIA

10:00etan, Autodefensa Feminista tailerra. Irakaslea: Maitena Monroy. Kultur Etxean.

IGORRE

17:00etan, Arratiako Eleizak eta Lagungo alkarreak antolatutako gurasoentzako ikastaroa.

22:00etan, zinea *La llegada*. Lasarte Aretoan.

URTAILAK 29
IGORRE

17:00etan, zinea euskeraz *Axel heroi txikia*; 19:30ean, zinea *La llegada*. Lasarte Aretoan.

DIMA

11:30ean, Bizi Plaza proiektuaren barruan auzolana.

ZEBERIO

20:00etan, zinea *El Regreso* Eskola Zaharrean.



Los Cinco Bilbainos seikotea Igorren

Los Cinco Bilbainos taldeak emonaldia eskeiniko dau urtailaren 20an, iluntzeko 20:00etan Igorreko Lasarte Aretoan.

Los Cinco Bilbainos jardunean dagoan Iberiar penintsulako musikari bokal talde zaharrena eta tradizionalena da. 65 urte daroz Europa eta Ameriketan kantetan. Barritzatutako formazioak sei kide ditu.

Jose Luis Fernandez, baritono eta bajua; Jose Antonio Gonzalez de Bizkaia, lehen tenorra; Eduardo Robles bigarren tenorra eta bateria; Jacinto Oñate gitarrea, Moises Arberas, pianoa eta Josune Barroeta akordeoia jotzen, dira Los Cinco Bilbainos taldeko kideak.

Moises Arberasek tarte baten taldea itxi behar ebala eta 2003an casting-a egin eben ordezkoa bilatzeko. Josune Barroeta hartu eta 2005era arte egon zan taldean, ikasketak zirala eta kanpora joan behar izan eban arte. Arberas bueltau zan eta 2008an Josune Barroeta bueltau zanean, seirak geratzea ebatzi eben, musikea "aberatsagoa" izateko.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

SALGAI

Hamar ardi eta aharitua (latxa errazakoak). Gura izan ezker, Undurraga auzunean, hektarea bateko larrea eta txabolea be itxiko jako erosleari, garbitzearen truke. Telefonoa: 653 745 838 (Gotzon).

DANERIK

BAZKIDE BILA

Arratiako euskerazko aldizkariak bazkideak behar ditu. Interesauak 649 979 115 telefonora deitu.

LAN BILA

Etxeak, bulegoak, portalak... eta abar garbitzen dodaz. Kotxeduna. Interesatuak 635 207 386 telefonora deitu.

LAN BILA

Etxe garbiketarako eta plantxea egiten dodaz. Kotxeduna. Interesatuak deitu 658 591 307 telefonora.

LAN BILA

Etxe barruko behargin moduan lan bila dabilen neska bat naz. Persona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiten dodaz.

Deitu 622 197 909 telefonora.

IGORREN BERBALAGUN BILA

Astean ordubete euskeraz berba egiteko aukerea! Ikasten dagozanak lagundu gura badozuz edo euskeraz erreztasuna lortu, deitu 688 802 373 telefonora edo mezua bialdu euskera@igorre.net helbidera.

ALOKATZEN DA

Jardunean dagoan estetika zentroa alokatzen da Galdakaoko erdigunean. Hartu-emonetarako deitu 94 456 64 57 telefonora.

TIRALARI BILA

Harriti andra proba taldea, taldean parte hartzeako Arratiako andra bila dabil. Eider 639 293 539.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 **Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Los Cinco Bilbainos taldearen emonaldirako.**

Ainhoa Etxazarra (Bedia)
Sebas Angoitia (Artea)



2 **Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera El faro de las orcas filmarako.**

Sonia Ingunza (Areatza)
Unai Grijalba (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 14

urte eta

ehundaka

lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| 1 | | | | | | | |
| 2 | | | | | | | |
| 3 | | | | | | | |
| 4 | | | | | | | |
| 5 | | | | | | | |
| 6 | | | | | | | |
| 7 | | | | | | | |
| 8 | | | | | | | |
| 9 | | | | | | | |

EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Bostehun erromatar. Prezio, balio.
2.- Ezetza. Ez hori ez ha. 3.- Oskol.
Letra bat. 4.- Bakazino. Bizkaiko udalerria. 5.- Gabx. 6.- Ozta-ozta.
Janariari botaten jako. 7.- Oxigenoa.
Kokomarroa. 8.- Langile Abertzaleen Batzordea. Min daukagunean dinogu.
9.- Gizonezkoen izena. Nitrogenoa.

GOITIK BEHERA

1.- Deabru. Letra bat. 2.- Zukua, saldea. Musika nota. 3.- Letra bat. Betekadea adierazoteko onomatopeia. Erromako mitologian, hilen arima. 4.- Desohore.
5.- Errusiako mendebaleko ibaia. Birritan, Afrikako tanbor antzekoa izentetako onomatopeia. Berrogeta hamar erromatar. 6.- Birritan, hodi. Lotua. 7.- Uranioa. Gau-jagole.

| | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| N | L | E | N | D | 6 | J | A | I | Z | O | 4 | |
| I | V | B | V | L | 8 | V | L | O | X | V | 1 | |
| V | P | W | M | O | Z | R | I | I | V | O | 1 | |
| Z | L | V | G | V | I | 9 | Z | N | I | V | M | 3 |
| U | S | L | K | E | N | 5 | H | O | N | H | X | Y |
| V | A | E | R | O | P | 4 | S | V | N | O | I | Y |
| G | M | O | K | O | O | 3 | R | I | X | K | I | 1 |
| L | O | L | O | K | O | 3 | V | M | O | N | I | 1 |
| H | A | V | H | A | Z | 2 | S | I | V | I | N | 1 |
| I | D | O | K | O | S | 1 | S | I | V | I | N | 1 |
| U | K | O | S | T | U | 1 | V | M | O | N | I | 1 |
| 7 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | I | O | S | I | V | 1 |

Topau zazpi konstelazinoren izenak.

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Z | E | M | A | N | I | U | S | D | I |
| O | Z | E | T | A | U | R | U | S | A |
| K | R | E | T | A | K | I | L | E | S |
| G | O | L | N | B | A | R | E | S | O |
| T | A | K | O | T | I | U | O | M | A |
| E | R | L | I | R | A | H | E | R | I |
| S | O | R | R | I | K | U | O | I | B |
| E | B | L | A | T | O | R | R | A | S |
| D | O | T | U | R | I | S | I | O | E |
| O | D | A | K | E | R | U | O | G | H |
| F | E | R | A | K | A | L | N | U | Z |
| U | G | A | J | O | K | A | L | I | B |
| M | A | R | O | S | A | G | E | P | I |
| O | S | T | E | R | A | K | O | L | A |
| P | O | M | A | D | E | T | A | P | E |

AKI MI KO

I man Olatu



umaan moda
sew
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnos. 94 631 92 96 • sewmoda@hotmail.com

AKESOLO, S.A.
GARRAIKAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
Garbe, 29 Telefonos: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

AKEITEGIA
GATV & LORA
IGORRE

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, beheha
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
KOSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ
ZEIB ERDARAZ
Lehendakari Agirre 31
Tfnos.: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@telefonet.net

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK, ETXEBIZITZAK, DENDAK, ISTRIPUAK, BIZITZA...
ABOKATUAK: ZUZ. ZIBILA, KONTSUMO ZUZ., ADMINISTRAZIO ZUZ., INGURUGIRO ZUZ.
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA, ZERGAK, KONTABILITATEA
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, beheha - Igorre (Bizkaia)

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-40-54

Orre
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
L. Agirre, 2.
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnos.: 94 673 64 25

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta euskaraz zein erdaraz
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefonos 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 80
e-por: urratia@euskatel.net

AITZOL ATUTXA

"Aitaren sasoian azkora zaletasun handiagoa egoan Arratian"

2016an Urrezko Aizkolarien liga izan ezik, dana irabazi eban Aitzol Atutxak. Euskal Herriko hirugarren txapela jarraian eta Bizkaiko hamargarrena lortu ebazan. Dana irabazi ostean, presinoa eroaten jakin behar dala eta motibazioa mantendutea gatx egiten dala dino txapelkunak. Arratian azkora zaletasuna beherantza doala uste dau Aitzol Atutxak.

Erredakzioa**Hainbeste txapelen artean, zein da inportanteena?**

Txapelik inportanteena Euskal Herrikoa da. Euskal Herriko Txapelketea dana da guretzat: gure munduko txapelketa, gure Europako txapelketa... gure Tour-a, gure mundiala... Euskal Herriko Txapelketea lorpen handiena da eta horregaitik jomuga edo helburu moduan jarten dogu. Hiru urtez jarraian lortu dot eta sano pozik nago.

2016an irabazi ez dodana izan da Urrezko Aizkolarien Liga, bigarren postuan geratu nintzan, baina gainontzeko txapel guztiak irabazi dodaz. Eta azpimarratzen da Bizkaiko Txapelketa 10 urtez jarraian irabazi dodala. 28 urtegez 10 txapel jarraian eukitea, asko da.

Dana irabazita, zer geratzen jatzu 2017rako?

Bardina gertatu jatan 2015a amaituterakoan. Orduan be danak irabazi nebazan Urrezko Aizkora izan ezik, hori 2016an lortu dot eta 2016rako helburua apustu bat egitea zan. Jose Mari Olasagastigaz egin neban, baina zoritxarrez istripu bat euki eban eta ezin izan dogu apustua aurrera eroan. Bertan behera geratu da, eskua ez jakolako ondo ipini. Nik uste dot helburu hori 2017ra pasau beharko dala.

Beste norbaiten kontra izan beharko da, ez dakit. Gauza horreek askotan neska-laguna edo mutil-laguna bilatzea langoa izaten da, ez da heltzean zuk pentsautakoan, datorrenean baino. Apustuak bardin. Askotan, egiteko gogoia euki arren, baldintzak ez dira beteten. Baina baleiteke 2017an apusturen bat sortzea.

Txapelketak jagokienez, txapela lortzea beti da zaila, baina goian mantentzea oraindino zailagoa. Hainbeste garaipen errepikatzea zaila da, motibazioaren aldetik zailtasun handiak dagoz... gero gainontzean ez gara profesionalak, ez gara horretara dediketan eta horrek zailtasunak areagotzen

ditu.

Ze garrantzia dauka azkorak zure bizitzan?

Azkorea esku artean egunero hartu ez arren, buruan daukat beti. Azkolaritzan txiki-txikitatik hasi nintzan, nire bizitza azkoraren inguruan izan da beti eta gaur egun be holan da. Udan zehar, astegoienetan, astean zehar, txapelketak, erakustaldiak, entrenamentuak... Astean hiru bat aldiz hartzean dot azkorea eta hartzean ez dodanean gimnasioan edo menditik egiten dot entrenamentua.

Zenbat urtegez hasi zinan azkoran? Zelan?

Aita azkolaria zan eta "zer ikusi hura ikasi". Arreba bat daukat zaharragoa, harek ez eban azkorea hartu. Bospasei urtegez hasi nintzan azkorea hartuten eta aitak horretarako neure neurriko bat egin eustan. Plazara zazpi-zortzi urtegez atera nintzan lehenengo aldiz, jolasean.

Niretzako jolas bat zan.

Txikitan Bilbon bizi izan zinan.

Bai. Bilbon jaio eta Bilbon bizi izan nintzan 22 urte izan arte. Asteburuetan Dimara etorten ginan. Ikasketak be Bilbon egin nebazan. Enpresa Zientzietako lizentziatura daukat eta ikasketak bukatuta etorri nintzan Dimarantzara.

Jente asko harritzen zan, Bilbon bizi eta azkoran ibilteaz. Ez da ohikoa bilbotar bat, Enpresa Zientzietan lizentziatua eta azkolaria izatea. Baina azkolaria guztiak ez dira baserrian bizi. Egoten dira lekuak entrenamentuetarako, aterperen bat edo. Nik be ez dot etxean entrenetan. Lemoan entrenetan dot lagun batzukaz. Kirol hau oso gogorra da bakarrik ibilteko. Ezinezkoa. Behar dozuz pare bat lagun egurrak lagun duten.

Zer erakutsi edo zer emon deitsu kirol honek?

Txapelez gain... txapelak eta garaipenak eta lagunak be bai. Hori da positiboa, lagunak egiten dirala. Eta gero, uste dot bizitze-

ko gaitasuna be emon deustala, beste egoera batzuen aurrean nora jo jakiteko balio izan deusta. Kendu be bai. Batez be umetan eta gaztetan, baina bueno. Lotsa puntu bat kentzean be lagundu deusta. Azkoreak danetik emon deusta.

Gurako zeunkez zure semeak azkolaria izatea?

Seme bi daukadaz. Ez da gura dodan gauza bat. Ilusino bardina egingo leuskit musikariak balira. Eurak zerbaist egitea eta dibertitzea gura dot. Niri azkolaritzak emon deustazan gauza guztiak eta poztasunak, beste zerbaistek emoten badeutsez, ni pozik. Ez da zertan azkorea izan.

Lehen esan dozun moduan, azkoratik ez zara bizi. Txakolina egiten dozue Axpe Goikoa enpresa familiarrean, ezta? Zenbateko produkzioa daukazue?

Printzipioz proiektua zati bitan bananduta dago. Lau hektarea dagoz bost urtekoak edo eta beste zazpi urte bikoak. Hau da, momentuz zati bat bakarrik dago produzitzen, bestea etorkizunerako dago. Gure txakolina, hemen inguruan, Estatu mailan eta kanpoan be saltzean da. Batez be, Ameriketara eta Japoniara saltzean dogu.

Txakolinaren merkadua nahiko asetuta dago Euskal Herrian, horregaitik kanpora saldu behar da. Momentuz 30.000 botila inguru produziduten doguz eta erdi eta erdi. Erdia hemen geratzen da eta beste erdia kanpora saltzean dogu.

Estatu Batuetan eta Japonian, ezagunagoa da Gipuzkoako txakolina, azkarrago ibili dira zentzu horretan gipuzkoarrak. Nahiz eta biak txakolin izena izan, produktu desbardinak dira. Gipuzkoakoak karbonikoa dauka eta Bizkaikoak ez. Dana dala, nik uste dot ardo zuri on bat dala Bizkaiko txakolina eta situazioa ona daukala munduan.

Mahastietako beharra egiteko beharginak daukazue?

Lan asko azpikontratu egiten doguz. Beste mahasti batzuek konpartiduten doguz kontratuak. Sasoi batzuetan lan asko egoten da eta beste batzuetan ezer ez. Mahatsa bildu behar danean, egun baten edo bitan bildu behar da, eta horretarako 20 persona inguru behar dira. Upeletegiagaz hartumona daukagu eta bere bitartez kontratatzen dogu lan gehiena.

Non ekoizten da zuen mahastietako txakolina?

Larrabatzun. Iturrialde bodegan. **Zelan hasi zinan negozio honetan?** Jatetxea martxan dago orain dala



15 urte eta aitari bururatu jakon jatetxearen azpian dagozan landetan mahastiak landatzea, produktua dibersifikatzearen. Gure negozioa mendian da, mendian egiten dogu lan, mendiak salestoen eta basoak ustiatzen.

Hasi eta segiduan, leku harek etorkizuna eukala ikusi eban aitak. Mahastientzako ez dira onak leku guztiak. Gurea, Bizkaiko mahastirik altuenetakoa izango da, eguzkia dauka eta baldintza onak ditu. Kalidadea eta produktibidadea ikusi eta gero, handitzera animau ginan.

Aurten, bigarren fasea hasiko da. Urte honetan bertan gertatu daiteke uztaren bat jasotea, txikia baldin bada be, gero handitzen joateko. Espero daigun izurriterik ez egotea eta igazko besteko uztza behintzat eukitea aurten be.

Horrek ekarriko dau merkadu barriak zabaldu beharra, ezta?

Merkaduak zabaltzen gabiltz, apurka-apurka. Nik uste kanpokoa haziko dala gehienbat.

Hainbeste gauza eta dana ondo eginda, geratzen jatzu denporarik plazer hutsezko gauzarik egiteko?

Nik azkolaritza hobby moduan hartzean dot. Txikitan hasi nintzan, jolas moduan. Gero nerabezaroan hobby bat izan zan eta orain ez dakit zer dan. Ez dakit afizinoia, lana, betebeharra edo zer dan. Bakarkako kiroltan, buruak karga handia izaten dau. Gorputzak be bai, jakina. Azkenean hainbeste bider txapelketa izanda, emoten dau leku guztietan irabazi egiten behar dozula eta

hori eroaten jakin behar da.

Azkolaritzaz aparte, familiagaz egotea eta jatea gustetan jata.

Zelan ikusten dozue azkoraren etorkizuna Arratian?

Etorkizunean ez dakit azkolaririk izango dan Arratian. Ez dago azkora eskolarik. Sakanan bai, azkolaria Eskola bat dago. Han biltzean dira umeak azkoran ikasteko eta mankomunitatearen bitartez egiten dabe. Politia izango litzateke Arratian be azkolaria eskolea eukitea. Zunba ikastaroak egiten diran moduan, zergaitik ez herri kirola?

Arratian badago herri kirola egiten dauan talde txiki bat eta hori mantendu edo indartu egin beharko litzateke.

Nik uste dot herri kirol zaletasuna galtzean dagoala Arratian. Azkolaritzan behintzat bai. Gure aitaren sasoian, zaletasun handiagoa egoan. Akaso, Arratiako azkolaria gehiago ebiltzalako. Horren adibide garbia da gaur egungo Euskal Herriko txapelketa arratiarra izanda, Arratian saio bakarra egin dodala aurten. Horrek tristetzen nau. Egin dodan saio bakarra izan da kanporaketa bat eta abenduan izan zan, urtea amaitzean egoanean.

Nik 2017ari eskatuko neuskio Arratian bertan saio gehiago egitea. Euskal Herriko Txapelketea Bilbon irabazi neban, baina arratiar pilo bat egon zan ikusten. Orain andrazkoen Urrezko Kopa be badago... Herri kirol eskolatan bat egingo balitz, Sakanan dagoan moduan, Mankomunitatearen bitartez, ni laguntzeko prest egongo nintzateke.